

INGURUMEN KUDEAKETAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Arabako Campuseko Errektoreordetza

EDUKIA

	Orrialdea
Aurkezpena	3
Estrategiaren oinarriak Helburuak	3
Antolaketa egitura eta Estrategiaren ardatzak	5
1. ardatza: Mugikortasun iraunkorra eta Campuserako irisgarritasuna	7
1.- Ikasturte bakoitzean unibertsitateko kideen mugikortasuna eta Campuserako irisgarritasuna aztertzea eta diagnostikatzea	8
2.- Mugitzeko beharra murriztea	8
3.- Joan-etorriak bitarteko iraunkorren bidez (garraio kolektiboa erabilita, bizikletaz eta oinez) egin daitezten sustatzea	9
2. ardatza: Hondakinen kudeaketa, baliabideen optimizazioa eta guneen egokitzapena	12
1.- Gasteizko Udalarekin elkarlanean, udal hondakinekiko asimilagarriak diren hondakinen gaikako bilketa plana ezartzeko hasierako proposamena egitea	13
2.- Lehiaketetan ingurumen arloko eta erosketa berdeko irizpideak barneratzea	13
3.- Energia kontsumoa eta eraginkortasuna	14
4.- Eraikin berriak egitea eta energia berriztagarrien erabilera bultzatzea	15
3. ardatza: Komunikazioa, hedapena eta kontzientziazioa	16

AURKEZPENA

Azken urteotan ingurumenarekiko kezka etengabe handituz joan da; 90eko hamarkada bereziki garrantzitsua izan zen, kezka hori hainbat eratako jarduketan bidez gauzatu baitzen. Fundazio, elkarte, tokiko erakunde, gobernu eta enpresen ekimenak areagotuz joan dira eta ingurumen arloko irizpideak defendatzeko prozesua zabalduz, iraunkortasuna gizartearen etorkizunerako ezinbesteko helburua dela oinarritzat hartuta.

UPV/EHUren Arabako Campusak, Gasteizko Udalak Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren bidez eskainitako elkarlan finantzario eta teknikoari esker, egindako ekodiagnostikoetan oinarritutako ekokudeaketa planak prestatzeko aukera emango zuen proiektua jarri zuen martxan 2002ko maiatzetik 2004ko ekainera artean. Lortutako emaitzetatik, Ingeniaritzako Unibertsitate Eskolak egindako lana nabarmendu behar da. Eskolak, kalitatearen kudeaketagatik gailentzeaz gain (zilarrezko Q), Ekoscan ingurumen ziurtagiria ere eskuratu du. Gasteizko Udalak eta gure ikastegietako batek hartutako konpromiso berezi honen ordainetan, Arabako Campuseko zuzendaritza taldeak jarrera garbia hartu behar du jarduketa eta sentsibilizazio esparru honetan. Jarraian aurkezten duguna errealismoz aztertuko den prozesuaren hasiera da, unibertsitateko kide gehienak tartean sartuko dituelako uste osoarekin aztertuko den prozesuaren hasiera.

Arabako Campuseko zuzendaritza taldeak **Ingurumen Kudeaketako Plan Estrategikoa** izeneko prestatu du Campusaren eguneroko bizitzan eragina duten zenbait jarduketa abiarazteko funtsezko tresna gisa.

Estrategia UPV/EHUren Arabako Campusean ondorengoak egiten laguntzeko sortu da, zentzu zabalean: bertako jarduera guztietan ingurumena hobetzeko helburuak barneratzea, aipatu helburuak betetzeko beharrezko ekintzak zehaztea eta, ahalik eta hein handienera, ingurumenarekiko jokabide egokiak proposatzea. Etorkizun hurbilean, eta horren osagarri gisa, desiragarria litzateke gizartearen iraunkortasunari laguntzea, aplikatu ahal izango litzazkiokeen ingurumen kudeaketako esperientzia zehatzak gauzatu.

ESTRATEGIAREN OINARRIAK

Hiriak eta unibertsitateak administrazio unitatetzat hartzeaz gain, batzuk zein besteak elkarren artean erlazionatutako fluxu ugaritan oinarrituta eratutako lurralde baten parte diren fenomenoak direla esan daiteke. Hala, ingurunea-lurraldea oso modu konplexuan taxutzen da eta, beraz, ingurumen osagaia bereizezin bihurtzen da eta denboran eta espazioan gainerako dimentsio ekonomiko, sozial, kultural, politiko eta abarrekin batera antolatuta agertzen da. Unibertsitatearen esparru zehatzean, aipatu dimentsioak hezkuntzako nahiz mugikortasun, eraikuntza, hondakin, ondasun hornidura, zerbitzu eta abarreko alderdiei dagozkie. Unibertsitatearen jarduketa zuzeneko eremua mugatua den arren, prozesu honetan loturak eta ondorioak beren mugez haraindi hartu behar dira aintzat, nola hedabideetako irudian oinarrituta, hala eraikinen eta erabiltzaileen artean, horien guztien eta Campuseko ingurunearen artean eta Campusaren eta hiri osoaren artean sortutako interakzioetan oinarrituta.

Guneei, pertsoneri eta hauen jardueri eragiten dien erlazio sendoa dagoenez, adostasuna eta partaidetza ezinbestekoak dira. Beharrezkoa da unibertsitateko kide guztiek, hots, ikasleek, irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek (AZP) babesa ematea, uste osoa izatea eta parte hartzea. Testuinguru honetan oinarrituta, Arabako Campusaren Ingurumen Kudeaketako Plan Estrategikoa Campuseko guneetako bakoitzak dituen baliabideak modu iraunkorrean kudeatzeko nahiz bertako esparruetan ingurumena errespetatuko duten jokabideak sustatzeko tresnarik egokiena da. Ingurumen Kudeaketako Plan Estrategikoa diseinatzerakoan, 2009-2013 aldirako helburu orokorrak zehaztu dira:

Helburu orokorrak:

- 1. Arabako Campusak lantzen dituen jarduketa esparru guztietan ingurumen hobekuntzako helburuak eta jarduketak barneratzea eta ingurumenarekiko jokabide egokiak sustatzea.**
- 2. Lurraldearen ingurumen hobekuntzarako beste eragile bat bezala parte hartzea eta Gasteizko Udalak bultzatutako estrategien esparruan hiriaren garapen iraunkorraren alde modu aktiboan jardutea.**
- 3. Campuseko ingurumen kalitatearen etengabeko jarraipen eta hobekuntzarako mekanismoak ezartzea.**

ANTOLAKETA EGITURA ETA ESTRATEGIAREN ARDATZAK

Ingurumen Kudeaketako Plan Estrategikoak ez ditu soilik igurikimenak finkatu eta azterketak egin nahi; aitzitik, proposatu diren eta proposatuko diren ekintzak gobernu erakundeen, erakunde tekniko eta koordinaziokoen eta erabakiak hartzen inplikazio zuzenagoa duten eragileen arteko etengabeko elkarlanaren ondorioa izan daitezzen nahi du. Horren haritik, eta prozesuari hasiera emateko, “bulego berdea” ezarriko da (estrategiaren azterketa, jarraipen eta ebaluaziorako kabinetea). Une honetan sortze bidean da eta bere eginkizunak aurrerago deskribatzen dira. **Ingurumen Kudeaketako Bulegoa** ingurumen irizpideak barneratzeko prozesuak abian jarri dituzten unibertsitate guztietan nahikoa zabaldua dagoen ereduaren arabera diseinatu da (Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Bulego Berdea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko OSHA, Kataluniako Unibertsitate Politeknikoko OSSMA...) eta, horren bidez, Arabako Campuseko iraunkortasunarekin erlazionatutako zeregin eta jarduera guztiak eta horien jarraipena bideratuko lirateke. Jakina, bai bere ardurapeko langileen egitura bai jarduketak Arabako Campuseko aurrekontu orokorren bidez eta erakunde eta/edo enpresekin egiten diren hitzarmen espezifikoaren bidez finantzatzeko dira.

Ingurumen Kudeaketako Bulegoak, proposatutako strategiak hartzen dituen urteetan zehar, ondorengo zereginak barneratu nahi ditu egun Campusak ematen dituen zerbitzuen egitura eta eginkizunetan:

- 1.- Campuseko gerenteordearen zuzendaritzapean egongo den egitura profesionalizatuaren (organigrama) eginkizunak diseinatzea, neurtzea eta zehaztea, baita Campuseko Kalitate zuzendariarekin eta Campuseko unitate tekniko eta zerbitzuekin duen erlazioa ere.
- 2.- Beste administrazio batzuek ingurumen kudeaketan izandako esperientziei buruzko material bibliografikoaren artxiboa (hainbat euskarritan) eta ingurumen ziurtagiridun produktu eta enpresen katalogoa diseinatzea eta zehaztea.
- 3.- Jarduketa proposamen berriak egiteko aukera emango duten ingurumen kudeaketako proiektu espezifikoak prestatzea. Protokoloak eta metodoak:
 - Zerbitzu lehiaketetako baldintza orrietan eta erosketa eta/edo hornidura kontratuetan ingurumen irizpideak barneratzea
 - Eraikinak diseinatu, eraiki eta erabiltzerakoan ingurumen irizpideak aplikatzea
 - Lehendik Campusean badauden eraikuntza tipologia bakoitzerako proposamenak
 - Mugikortasuneko eta Campuserako eta irisgarritasuneko proposamenak egitea
 - Unibertsitateko ingurumen kudeaketari buruzko adierazleak prestatzea
- 4.- Baliabideen kontsumoa eta hiri hondakin solidoen eta hondakin berezien kudeaketa kontrolatzea, Plan Estrategikoan jasotako jarduketei jarraiki, eta Gasteizko Udalarekin koordinatuta.
- 5.- Ingurumen Kudeaketako Plan Estrategikoaren komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak diseinatzea eta antolatzea.
- 6.- Ingurumen Kudeaketako Plan Estrategikoko adierazleen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

7.- Urtero jarduerak finantzatzeko proposamena egitea.

Eginkizun guztietatik atera daitekeen ondorioa da Bulegoa sortzearen helburu nagusietako bat gobernu organoei ingurumen kudeaketako arloetan erabakiak hartzeko aholku ematea dela. Hala, Bulegoaren jardura (ikus eginkizunak) Ingurumen Kudeaketako Plan Estrategikoko jarduketa ildoan ezarpen prozesuaren eta Campuseko Errektoreordetzako gobernu taldeak emandako jarraibideen oso menpe dago. Campuseko Gerenteordetza eta Kalitate Zuzendaritza arduratuko dira ezarritako jarduketan jarraipena egiteaz eta betetzen direla bermatzeaz. Hala, beraz,

1- Campuseko Gerenteordetzak Bulegoaren eguneroko jardura kudeatzeko arauak finkatuko ditu eta Bulegoaren ekintza Arabako Campuseko gainerako kudeaketa unitateenarekin koordinatuko da. Plan Estrategiko honetako jarduerak gauzatzeko, hasiera-hasieratik, beharrezkoa izango da Kontratazio eta Erosketako Unitate Teknikoarekin (adibidez, preskripzio teknikoen orrietan ingurumen irizpideak barneratzeko, eta erosketa berdearen arloko aholkularitza emateko), Arkitektura eta Lanen Unitate Teknikoarekin (esaterako, azpiegiturak instalatzeko, energia aurrezteko, mantentze lanak egiteko...) eta Komunikazioko Unitate Teknikoarekin (adibidez, komunikazio kanpainak prestatzeko) elkarlan estuan aritzea.

2- Kalitate Zuzendaritzak finkatuko du Bulegoak zer lan egin behar duen lau urterako Iraunkortasun Plan Integrala prestatzen hasi ahal izateko epe ertainerako ekintzak planifikatu eta proposamenak eta gomendioak egiterakoan. Horretarako, Kalitate Zuzendaritzak helburu horrekin gutxi barru sortuko den Campuseko Batzarraren batzorde eskuordetuan parte hartuko du. Zuzendaritza arduratuko da, halaber, ingurumen hezkuntzako eta komunikazioko kanpainak antolatzeaz.

Ingurumen Kudeaketako Plan Estrategikoaren ardatzak:

- 1. Mugikortasun iraunkorra eta Campuserako irisgarritasuna**
- 2. Hondakinen kudeaketa, baliabideen optimizazioa eta guneen egokitzapena**
- 3. Komunikazioa, hedapena eta kontzientziazioa**

1. ARDATZA: MUGIKORTASUN IRAUNKORRA ETA **CAMPUSERAKO IRISGARRITASUNA**

Mugikortasunaren ondoriozko airearen kutsadura ingurumenaren narriaduraren zutabeetako bat bihurtu da, eskala ezberdinetan. Gainera, gogorarazi behar da ibilgailu motordunen erabilerak kutsadura akustiko handia sortzen duela eta ibilgailu partikularrek eta hauetarako beharrezko azpiegiturek ere gero eta kezkarriagoa den lurzoru publikoaren okupazioa dakartela. Arabako Campusa hirian kokatuta dagoenez (ikastegi asko hiriaren hegoaldean daude), erraza da ibilgailu ez motordunak (bizikleta) eta hiriko garraio publikoa erabiltzea Gasteizko eremu edo jarduera guneez bestera joateko. Tranbia garraio publikoko sarean sartzeak eta berriki ezarri den Mugikortasun Iraunkorreko Plana prestatzeak pentsarazten dute datozen urteotan inflexio puntua edo haustura gertatuko dela garraiobide ez iraunkorrak erabiltzeari dagokionez.

Beste arazo bat Arabako beste udalerrri batzuetan nahiz beste lurralde batzuetako udalerrietan bizi direnen Campuserako irisgarritasuna da, lurralde barruko eta lurralde arteko garraio publikoak dituen gabeziak direla medio (nagusiki, ordutegiak eta maiztasunak). Campusera joaten den pertsona kopuru ugaria dela eta, horien mugikortasuna eta irisgarritasuna Arabako Campusean nabarmenenak diren eta konponbide zailena duten arazoetako bat da. Arlo honetan biltzen diren jarduketek mugitzeko beharra murriztuko duten ekintzak bultzatzea eta, hala badagokio, garraio publikoaren sustapena eta Campuserako irisgarritasunaren hobekuntza indartzea dute helburu.

Eragiketa helburuak:

1. Unibertsitateko kideen mugikortasun profila ezagutzea, baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde ezberdinek duten Campuserako irisgarritasuna ere.

2. Mugikortasunak ingurumenean duen eragina neurtzea (ibilbide osoa, CO₂-aren isuriak, "aztarna ekologikoa").

3. Irisgarritasuna maximizatzeko eta ingurumenaren gaineko eraginak murrizteko aukera emango duen ekintza plana prestatzea.

4. Fluxuak (mugitzeko beharra) murriztea, unibertsitateko kudeaketa prozesuetarako sarbide birtual zabalagoa eskainita eta Gasteizen bizi den pertsona kopurua, bereziki ikasleena, handituta.

5. Ingurumena errespetatzen duten garraiobideen erabilera faboratzen duten neurriak hartzea: hots, oinez, bizikletaz, garraio publikoan eta ibilgailu partekatuan mugitzea.

6. Campusera joateko ibilgailu partikularren erabilera pixkanaka murrizteko aukera emango duten neurriak hartzea.

7. Desplazamendu modalitate iraunkorren erabilerari buruzko informazioa zabaltzeko eta horien inguruan sentsibilizatzeko estrategia diseinatzea.

Eragiketa helburu hauek betetzeko, ondorengo **jarduketak** proposatu nahi dira:

1.- Ikasturte bakoitzean unibertsitateko kideen mugikortasuna eta Campuserako irisgarritasuna aztertzea eta diagnostikatzea:

Ekintzak:

- Sarbide aukeren arteko desberdintasunari eta garraio publikoaren potentzialtasunari buruzko diagnostikoa egitea (sarbide ardatzak, garraio publikoaren eta bere modalitateen erabilgarritasuna, joan-etorrietarako denborak, Gasteizko estandarren eta biztanleei oro har dagozkien arteko alderatzea), ingurumenaren gaineke eragina neurtzea, etab.

Eraitza adierazlea:

- *Campuserako Irisgarritasuna Aztertzeke Agiria*
- *Ingurumen Kudeaketake Bulegoaren web orrialdeak izandake bisita kopurua*

- Unibertsitateke kideen mugikortasun ohiturei buruzke inkeste (ikasturte bakoitzean pertsoneri eta mugikortasunari buruzke datuak biltzen dituen inkeste eredu prestatzea). Helburua ondorengoan moduko alderdiak jaso behar dituen inkeste prestatzea da:

- Ikastegira joate
- Ikastegira sartzeko eta bertatik ateratzeko ordutegien banaketa
- Ikastegian ematen den denbora
- Jatorria eta bizilekuaren eta ikastegiaren arteke distantzia
- Erabilitake garraibideak (modalitateak)
- Ibilgailu pribatuaren erabilera justifikatzeko arrazoiak (doako aparkalekua, garraio publikoko aukerarik eza, garraioaren kostuak)

Eraitza adierazlea:

- *Mugikortasun ohiturak aztertzeke agiria*

2.- Mugitzeko beharra murriztea:

Ekintzak:

- Prozesuak Internet bidez eta UPV/EHUko intranetaren bidez automatizatzea (automatizakula, liburutegia, kirolekake eta kultura jardueretake zerbitzuak, etab.).

Eraitza adierazleak:

- *Prozesu automatizatuen kopurua*
- *Web orrialdera egindake bisita kopurua*
- *Zerbitzua erabiltzen duen pertsona kopurua*
- *Sarea erabiltzen duten pertsonen portzentajea, zerbitzua erabiltzen duten guztiei dagokienez (presentzialak + ez presentzialak)*
- *Internet bidez edo intranetaren bidez zerbitzua erabiltzeak ingurumenaren gainean duen eraginaren murrizketa neurtzea*

- Hirian bizi diren unibertsitateko kideen kopurua handitzeko administrazio publikoekin hitzarmenak egitea: egoitza publikoak, ikasleei alokatzeko gizarte etxebizitzaren programak.

Eraitza adierazleak:

- Hitzarmen kopurua
- Egoitza publikoetan eta UPV/EHUren egoitzetan ostatu emateko dagoen plaza kopurua
- UPV/EHUren bidez hitzartutako alokatzeko etxebizitza kopurua
- Alokatzeko etxebizitzetan bizi den ikasle kopurua
- Hitzartutako alokatzeko etxebizitzetan dauden ikasleen portzentajea, kopuru osoari dagokionez
- Gasteizen bizi diren pertsonen portzentajea, kopuru osoari dagokionez

3.- Joan-etorriak bitarteko iraunkorren bidez (garraio kolektiboa erabilia, bizikletaz eta oinez) egin daitezzen sustatzea:

Ekintzak:

3.1- Unibertsitateko kideen eta, bereziki, ikasleen aldeko tarifa politikak (“bidaia txartelak”):

Eraitza adierazleak:

- RENFERekin sinatutako hitzarmen espezifikoaren kopurua
- Garraio konpainiekin sinatutako hitzarmen espezifikoaren kopurua

3.2- Bizikletaren erabilera bultzatzea:

- Campusean bertan eta bertako ikastegiaren eta hiriaren artean bidegorriak egitea (bereziki, Campusa Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatearekin eta Olarizuko Irakaskuntza eta Ikerketa Zentroarekin lotzeko).

Eraitza adierazleak:

- Campusaren barruko bidegorriaren km kopurua
- Ikastegi guztietan bizikletetarako aparkalekuak jartzea.

Eraitza adierazleak:

- Bizikletak aparkatzeko azpiegiturak instalatzeko aurrekontua
- Campuseko ikastegi eta gune komun guztietan dagoen aparkaleku plaza kopurua
- “Icebergak” (txartel bidez dabiltzan lurpeko aparkalekuak) instalatzea (horiek finantzatzeak kostu handia du).

Eraitza adierazleak:

- *Instalatutako "iceberg" kopurua*
- *Eskainitako plaza kopurua*

- Unibertsitateko bizikletak: unibertsitateko bizikletak doan mailegatzeko sistema. Bi motatako bizikletak: urdinak (unibertsitateko kide guztientzat) eta horiak (besteak beste landa praktikak egiteko ikastegiei erabil ditzaketenak).

Eraitza adierazleak:

- *Bizikletak erosteko aurrekontua*
- *Mailega daitekeen bizikleta kopurua*
- *Bizikletak konpontzeko eta mantentzeko aurrekontua*
- *Konpondutako bizikleta kopurua*
- *Aire konpresoreak erosteko aurrekontua*
- *Campusean instalatutako aire konpresore kopurua*
- *Mailegu zerbitzua erabiltzen dutenen kopurua*
- *Mailegu zerbitzua erabiltzen duten landa praktiken kopurua*
- *Erabiltzaileen ekipamendurako aurrekontua*
- *Erabiltzaileen artean banatutako ekipo kopurua*
- *Zerbitzua erabiltzearen ondorioz eta unibertsitateko kideek desplazamendu moduei dagokienez jokabidea aldatzeari esker ingurumenaren gaineko eraginaren murrizketa neurtzea*

3.3- Ibilgailu pribatuaren erabilera arrazionala bultzatzea:

- Ibilgailu partekatua ("**Car Pool**"): atariak, web orrialdeko foroak. Mekanismoak jartzea: Praktiges (ikasleentzako praktikak) zerbitzuak bezala eskaintzak eta eskariak biltzen dituen datu base interaktiboa duen orrialdea.

- **CarXpress**

Eraitza adierazleak:

- *Web orrialderako bisita kopurua*
- *Ibilgailu kopurua*
- *Erabiltzaile kopurua*

3.4- Ibilgailu partikularrak erabiltzearen inguruko neurri murriztaileak:

- Gasteizko Udalarekin adostutako aparkaleku politika.

Eraitza adierazleak:

- *Proiektua zehazteko prozesuan eta faseetan egindako aurrerapenak*

2. ARDATZA: HONDAKINEN KUDEAKETA, BALIABIDEEN OPTIMIZAZIOA ETA GUNEEN EGOKITZAPENA

Unibertsitateak, bai irakaskuntza, ikerketa eta administrazio arloan bai unibertsitateko bizitzaren arloan, hondakin ugari eta askotarikoak sortzen ditu: nola hiri hondakin solidoak (nagusiki papera, kartoia eta ontziak) hala hondakin arriskutsuak edo bereziak, laborategietako jardueren ondoriozkoak. Ekoizle handi gisa, hondakinak iraunkortasun eta buruaskitasun irizpideen arabera kudeatzeko ingurumenarekiko erantzukizuna hartu behar da, hots, ekoizpena murriztu, produktua berrerabili eta birziklatu eta, azken beltzean, gainerako hondakinak gaikako bilketa orokorraren zirkuitura biderra dadila bermatu.

Eraikin bat egite hutsak eragin nabarmena du, bai lurzorua okupatzen delako bai hein batean edo erabat sakrifikatzen den erabilera potentziala duen gune bat hipotekatzen delako. Bestalde, unibertsitatearen eguneroko bizitzan egiten diren jardueren ondoriozko erabilerak anitzak direnez, eraikinen beharrak bereziak dira eta horrek energia eta baliabide kontsumoan eragiten du. Bai eraikinak egiterakoan bai eraikinen funtzionamenduan eta mantentze lanetan, bereziki gehien erabiltzen direnei dagokienez, baliabideen kontrola eta optimizazioa (ura, energia, materialak...) faboratzen duen ereduaren alde egiteak ingurumen hobekuntza zuzena ekar dezake; nolana ere, unibertsitateko kideek maiz erabiltzen dituzten guneak direnez, ikasteko lekuak ere badira baliabideen kudeaketa eraginkorreko sistemak aplikatzeko ereduak dagokienez.

Eragiketa helburuak:

1. Murriztu, berrerabili eta birziklatu printzipioan oinarrituta egongo den hondakinaren barne politika sortzea.
2. Hondakinaren jatorriko minimizazioa bermatzea eta sortutako hondakin asimilagarriak minimizatzeko politikak eta programak ezartzea.
3. Hondakinaren birziklapena eta berrerabilera bultzatzea, horien kudeaketa erraztuko duten politikak eta azpiegiturak oinarritzat hartuta.
4. Berrerabil daitezkeen gaiak ezagutaraztea eta horien erabilera sustatzea.
5. Arabako Campuseko hornidurari eta zerbitzuei dagokienez ingurumen aldetik egokiak diren politikak prestatzea eta produktuak eta hornitzaile ofizialak aukeratzeko ingurumen irizpideak barneratzea.
6. "Bidezko merkataritzaren" inguruko ekimenak bultzatzea.
7. Fluidoaren kontsumoan gehieneko eraginkortasuna lortzeko neurri aktiboak eta pasiboak oro har finkatzea, bai lehengo eraikinetan bai egingo direnetan.
8. Arabako Campuseko instalazio guztietan fluidoak aurrezteko neurrien aplikazioa sustatzea, baita energia berriztagarrien erabilera ere.

9. Arabako Campuseko eraikinak berritzeko eta berriak egiteko proiektuetan irizpide bioklimatikoak eta ekoeraikuntzakoak barneratzea.

Eragiketa helburu hauek betetzeko, ondorengo **jarduketak** proposatu nahi dira:

1. Gasteizko Udalarekin elkarlanean, udal hondakinekiko asimilagarriak diren hondakinen gaikako bilketa plana ezartzeko hasierako proposamena egitea:

- Eraikin bakoitzean gaikako bilketarako edukiontzia instalatzea eta kontsumoa aztertzea, tipologiaren arabera.

Eraitza adierazleak:

- *Papera eta kartoia (kg urteko)*
- *Beira (kg urteko)*
- *Fluoreszenteak (kg urteko)*
- *Pilak (kg urteko)*
- *Ontzi arinak [plastikoa (kg urteko) eta latak (kg urteko)]*
- *Inprimagailu eta fotokopiagailuetarako tonerrak (unitateak urteko)*
- *Olio mineralak (laborategiko ekipoak; I urteko)*
- *Landare olioak (I urteko)*
- *Hondakin organikoak eta konposta (kg urteko)*

2.- Lehiaketetan ingurumen arloko eta erosketa berdeko irizpideak barneratzea:

- Kanpo zerbitzuen hornitzaileak kontratatzeke lehiaketa publikoen preskripzio teknikoaren orrietan barneratu behar diren ingurumen irizpideak bideratu behar dituzten agiriak prestatzea.

- Ingurumen kalitateko bereizgarridun produktuak eta ISO 14001 eta/edo EMAS motako ingurumen kudeaketako sistema ezarritun hornitzaileak barneratuko dituen erosketa katalogoa prestatzea.

Eraitza adierazleak:

- *Proiektuak gauzatzeko prozesuan eta faseetan egindako aurrerapenak*
- *Amaitutako agiri kopurua (diagnostikoa, protokoloak, tresna teknikoak)*
- *Ingurumen irizpideak barneratuta dituzten baldintza orrietan oinarritutako lehiaketa kopurua*
- *Ingurumen irizpideak barneratuta dituzten kanpo zerbitzuen kopurua, kanpo zerbitzuen kopuru osoari dagokionez*

3.- Energia kontsumoa eta eraginkortasuna

- Arabako Campuseko eraikinetako bakoitzean ur, gas eta elektrizitate kontsumoa aztertzea.

Emitza adierazleak:

- Kontsumoa honela adierazita: kW pertsonako eta eguneko; m³ pertsonako eta eguneko, kW m²-ko azalera eraikiko, eta horien baliokideak, TEP unitateetan (petrolio tona baliokideak) eta gas eta elektrizitateko energia kontsumoaren ondorioz isuritako CO₂ tonetan.

- Eraikinetako bakoitzean beharrezko mikroazpiegiturei loturiko ekintzak aztertzea (banakako kontadoreak, sakagailudun txorrotak, deskarga etendun komuneko zisternak, deskargen programazioa...).

Emitza adierazleak:

- Instalazioak aldatzeko prozesuan egindako aurrerapenak

- Proiektu teknikoak egitea, unibertsitate eraikinen estalkietako euri urak berreskuratzeko aukera emango duten instalazioak (ura hartzeko sistemak) eta ur beltzen berrerabilerarako zirkuitu bikoitzeko sistemak barneratzearen bideragarritasuna aztertzeko.

Emitza adierazleak:

- Proiektu teknikoak prestatzeko prozesuan egindako aurrerapenak

- Gauzatutako proiektu teknikoen kopurua

- Proiektu teknikoak egitea, Arabako Campuseko eraikinetako bakoitzean eguzki plaka fotovoltaikoak instalatzearen bideragarritasuna aztertzeko.

Emitza adierazleak:

- Proiektu teknikoak prestatzeko prozesuan egindako aurrerapenak

- Gauzatutako proiektu teknikoen kopurua

4.- Eraikin berriak egitea eta energia berriztagarrien erabilera bultzatzea:

- Arabako Campuseko eraikinak berritzeko eta berriak egiteko proiektuetan irizpide bioklimatikoak eta ekoeraikuntzakoak barneratzea.

Emitza adierazleak:

- Amaitutako agiriak (diagnostikoa, protokoloak, tresna teknikoak)

- Eraikinen barruan domotika barneratzea, estalkian eguzki plaka fotovoltaikoak jartzea eta truke geotermikoko sistemen bidez hozteko sistemak instalatzea.

Eraitza adierazleak:

- *Proiektua gauzatu bitartean eta amaitzean eraikinaren energia eraginkortasuna ziurtatzea*
- *Proiektuen faseetan egindako aurrerapenak*
- *Plaka fotovoltaikoak: azalera (m²), instalatutako potentzia, energia aurrezpenari esker isuri ez diren CO₂ tonak*
- *Ponpa geotermikoak: ponpa kopurua, energia aurrezpenari esker isuri ez diren CO₂ tonak*

3. ARDATZA. KOMUNIKAZIOA, HEDAPENA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Unibertsitateko kideen sentsibilizazioa agiri honetan biltzen diren ildo estrategikoetako azkena da. Proposatutako helburuek eta jarduketek unibertsitateko kideen artean gizalegezko jokabideak eta jokabide iraunkorrak sustatu nahi dituzte; horren ildotik, partaidetza bultzatu nahi dute, besteak beste, jokabide iraunkorrak eta beste lurralde erakunde batzuekiko elkarlana saritzen dituzten ingurumen kanpainen bidez.

Eragiketa helburuak:

1. Arabako Campusean ingurumen irizpideak barneratzeko prozesuari buruz sortutako informazioa unibertsitateko kideei helaraztea, dauden komunikazio bitartekoak erabilia, nola barrukoak hala kanpokoak.
2. Euskarri informatikoa eta Internet sarea komunikazio, hedapen eta kontzientziazio tresna gisa erabiltzea.
3. Ingurumen irizpideak barneratzeari eta unibertsitateko esperientziei buruzko dokumentazio funtsaren sorrera faboratzea.
4. Ingurumen irizpideak barneratuta dituzten unibertsitateen arteko informazio trukea sustatzea.
5. Unibertsitateko talde bakoitzerako espezifiko den ingurumen hezkuntzako prestakuntza eskaintzea.

Eragiketa helburu hauek betetzeko, ondorengo **jarduketak** proposatu nahi dira:

Ekintzak:

- Urtero estrategia iraunkorraren aplikazioari buruzko memoria ekonomikoa prestatzea, aurrekontu arruntetatik eta beste administrazio publiko eta enpresa batzuekin egindako akordio/hitzarmenetatik etorritako finantziazioa adierazita.

Emaitza adierazleak:

- Urteko txostena
- Urteko aurrekontua (eurotan)
- Kanpo finantziazioaren portzentajea

- Ikastegietan eta Campusean mugikortasun azterketako eta ohiturei buruzko inkestako emaitzen triptikoa argitaratzea.

Emaitza adierazleak:

- *Argitaratutako eta banatutako triptiko kopurua (guztira eta bereizita)*

- Ikastegien eta Unibertsitate Pabiloiaren halletan emaitzen erakusketa egitea eta mugikortasun iraunkorrari buruzko aholkuak ematea.

Emaitza adierazleak:

- *Egindako erakusketa kopurua*
- *Berlaratuen kopurua (guztira eta bereizita)*

- Campusaren web orrialdean eta tokiko prentsan emaitzen berri ematea.

Emaitza adierazleak:

- *Web orrialdera egindako bisita kopurua*
- *Gaiari lotuta tokiko prentsan agertutako berri kopurua*

- Mugikortasun iraunkorrari buruzko informazioa kontsultatzeko gunea, ikasleentzako arreta bulegoei edo jarriko den "Bulego Berdeari" lotuta.

Emaitza adierazleak:

- *Web orrialdera egindako sarrera kopurua*
- *Erantzundako telefono kontsulta kopurua*
- *Erantzundako mezu elektroniko kopurua*

- Campuserako Irisgarritasun Gidaren argitalpena.

Emaitza adierazleak:

- *Banatutako Sarbide Gida kopurua*
- *Web orrialdera egindako bisita kopurua*

- Informazioa unibertsitate karpetetan eta agendetan sartzea.

Emaitza adierazleak:

- *Banatutako unibertsitate karpeta kopurua*

- Unibertsitateko jantokiko erretilu babesetan mugikortasunari buruzko informazioa ematea.

Emaitza adierazleak:

- *Urteko kanpaina kopurua*

- *Kanpaina bakoitzean banatutako erretilu babes kopurua*

- Campusean behar ez den lekuetan aparkatzearen aurkako kanpainak egitea (urratzearen berri ematen duten eranskailuak itsastea).

Eraitza adierazleak:

- *Urteko kanpaina kopurua*

- *Kanpaina bakoitzean ibilgailuetan itsatsitako eranskailu kopurua*

- "Muévete a pie" argitalpena (hiriko guneen eta Campusaren arteko denboren taula).

Eraitza adierazleak:

- *Argitaratutako ale kopurua*

- *Banatutako ale kopurua*
